



**2025EKO UZTAILAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko uztailaren hamalauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarraín Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxe-mai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari akzidental lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 57 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU euro ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI zentimokoa (81.254,78 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- GOIEKIRI EKARPEN BEREZIA.-

Goiekiko Administrazio Kontseiluak 2025eko maiatzaren 20an hartu zuen Oiangu-aldeko urbanizazio orokorraren inbertsioaren onarpenaren erabakia aurkeztu zaio batzordeari, egun horretan bertan alkateek egindako bilera batean emandako oniritzia duena. Inbertsioa 230.000 euro ingurukoa da.

Zenbateko hau biztanle kopuruaren arabera banatu da, honela udal bakoitzaren ekarpena zehaztuz. Lazkaoren kasuan ordaindu beharreko zenbatekoa 30.044,91 eurotan aurrikusi da, hiru zatitan ordainduko dena: 2025eko ekainean, 2025eko urrian eta 2026ko urtarrilean, 10.014,97 euro bakoitzean.

Batzordeak, aho batez, 2025eko bi ordainketak onartu ditu, 2026ko hirugarrena dagokion ekitaldian onartzeko utzi duelarik.

III.- KULTURA ETA EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

- Kultura arloko dirulaguntzak:

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Oin Arin dantza taldeari.-

2025eko ekainean San Juan sua antolatzeagatik 1.476,51 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.334.00 partidatik egingo da.

- Euskara arloko dirulaguntzak:

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Hiru ikasle izan dira eta emango zaien kopurua, guztira, 1.180,20 eurokoa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IV.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntzaa Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkao Txiki Musika eskolari.-

2025eko martxoaren 22an Lazkaon trikitixa jaialdia antolatzeagatik 2.000 euroko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

V.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat nekazal ekoizlek jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien ekoizleen bigarren ordainketa egitea:

NEKAZAL EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	545,00	233,57
GUZTIRA	545,00	233,57

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.



VI.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei laugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
JON SANTOS MARTIN	65,00	16,25
PRECOCINADOS MAITTE SL	250,00	62,50
OPILTXO SL (BIKA)	30,00	7,50
GOITIA AUTOESKOLA SL	200,00	50,00
GUZTIRA	545,00	136,25


Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita sei direnean eta nik, Idazkaria akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



**LAZKAOKO
UDALA**